BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA BEAZ S.A.U.REN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, EKONOMIA SUSTATZEKO SAILAREN JARDUKETA-EREMUAN BALIO ERANTSIKO JARDUERAK ETA ZERBITZUAK BATERA GARATZEKO

BILDUTAKOAK

Ainara Basurko Urkiri andrea erakunde horren izenean eta beraren ordezkari gisa, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2022ko otsailaren 2ko Erabakiaren bidez emandako ahalmenik erabiliz.

Bestetik, Olatz Goitia Urquiaga andrea, Beaz, SAUren izenean eta hura ordezkatuz (IFK:A-48229058), zuzendari nagusia gisa, eta 2242 zenbakiko eskrituraren bidez, 2019eko irailaren 25an Juan Benguria Cortabitarte, Bilboko notarioaren aurrean egiletsitako ahalordeak baliatuz.

Aldeek lankidetza-hitzarmen hau sinatzeko behar den gaitasun juridikoa eta eskumena aitortzen diote elkarri, Ekonomia Sustatzeko Sailaren jarduketa-eremuan balio erantsiko jarduerak eta zerbitzuak batera garatzeko, eta, hau dela bide

ADIERAZTEN DUTE

Lehenengoa

Lehiakortasun eta berrikuntza gaietan Bizkaiko Lurralde Historikoak eskumenak ditu, Euskadiren Autonomia Estatutuko 10.25 eta 37.4 artikuluen irakurketa bateratuan ondorioztatzen denez, Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunen eta

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y BEAZ, S.A.U. PARA EL DESARROLLO CONJUNTO DE ACTUACIONES Y SERVICIOS DE VALOR AÑADIDO EN EL ÁMBITO DE ACTUACIÓN DEL DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA

SE REUNEN

De una parte, Ainara Basurko Urkiri, en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia, actuando en virtud de las facultades otorgadas mediante Acuerdo de la Diputación Foral de fecha 8 de febrero de 2022.

De otra parte, Olatz Goitia Urquiaga, en nombre y representación de Beaz, S.A.U., CIF A-48229058A, en su calidad de directora general y en virtud de poderes otorgados mediante escritura número 2242 de 25 de septiembre de 2019 ante el notario de Bilbao Juan Benguria Cortabitarte.

Las partes se reconocen la capacidad jurídica y competencia necesaria para suscribir el presente convenio de colaboración para el desarrollo conjunto de actuaciones y servicios de valor añadido en el ámbito de actuación del Departamento de Promoción Económica y en su virtud

EXPONEN

Primero

En materia de competitividad e innovación, el Territorio Histórico de Bizkaia cuenta con competencias, tal y como se desprende de la lectura coordinada de los artículos 10.25 y 37.4 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, en

bere Lurralde Historikoetako Foru organoen arteko azaroaren 25eko 27/1983 Legeko (LHL) 6.1 eta 7 artikuluei dagokienez. Eskumenak egozteko bide honi jarraituz, ekintzaileei eta enpresa txikiei laguntza emateko Euskadiko Autonomia Erkidegoko ekainaren 28ko 16/2012 Legeko 15. artikuluak xedatzen du Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoek, dagokien eskumen-esparruaren barruan, beharrezko programak eta jarduerak prestatuko dituztela ekintzaileen jarduerak bultzatzeko, Legeko 14. artikuluan adierazitako helburuak lortu ahal izateko, 1. artikuluan aurreikusitako markoaren barruan. Programa eta jarduketa horiek lehiaren defentsari buruz indarrean dagoen araudiaren mende egongo dira, eta laguntzak, pizgarri publikoak edo bestelako neurriak emanez gauzatuko dira, araudi espezifiko bakoitzean zehazten den moduan.

relación con el artículo 6.1 y 7 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los órganos Forales de sus territorios Históricos (LTH). Siguiendo esta línea de atribución competencial, el artículo 15 de la Ley 16/2012, de 28 de junio, de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de apoyo a las personas emprendedoras y a la pequeña empresa dispone que las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, dentro de su respectivo ámbito de competencia, adoptarán los oportunos programas y actuaciones de apoyo a la actividad emprendedora, en orden a la consecución de los objetivos señalados en el artículo 14 de la Ley y en el marco previsto en el artículo 1. Estos programas y actuaciones se someterán a la normativa vigente en relación con la defensa de la competencia, y se instrumentarán a través de la concesión de ayudas, incentivos públicos u otro tipo de medidas, en los términos en los que en cada reglamentación específica se determine.

Beste alde batetik, Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunen eta bere Lurralde Historikoetako Foru organoen arteko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 6.1 artikulutik 7. a)12 artikulura bitartean xedatutakoaren arabera, lurralde historikoetako foru organoek eskumen esklusiboa dute artisautzan.

De otra parte, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 6.1 y 7 a)12 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma, los órganos forales de los Territorios Históricos tienen competencia exclusiva en artesanía.

Azkenik, foru administrazio honek, tokiko erakunde gisa, gai honetan baditu eskumenak, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Erakundeen, Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.2 artikulua eta Toki Erregimeneko Oinarrien Legeko 36.d) artikulua lotzen baditugu, izan ere Probintzietako Diputazioen edo erakunde baliokideen eskumena da ekonomia eta gizarte garapena sustatzeko eta planifikatzeko laguntza ematea probintziako lurraldean.

Por último, esta administración foral como entidad local también tiene competencias en estas materias si enlazamos el artículo 17.2 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia y el artículo 36.d) de la ley de Bases del Régimen Local, ya que es competencia de las Diputaciones Provinciales o entidades equivalentes, la cooperación en el fomento del desarrollo económico y social y en la planificación en el territorio provincial, de acuerdo con las competencias de las demás Administraciones Públicas.

Ekonomia Sustatzeko Saila, jada hasita dagoen prozesu eraldatzailean aurrera egiteko Bizkaiko Foru Aldundiaren tresna da. Bere xedea, Bizkaia lurralde berritzaile gisa kokatzea da, hau da, talentua duena, erakargarria dena eta konektatuta eta orekatuta dagoena, eta, horrez gain, bermatu nahi du, etorkizuneko Bizkaiak kalitatezko enplegua sortzeko eta mantentzeko gaitasun handia izatea eta Europako ekonomia eta gizarte abangoardian mantentzea.

Horretarako, Ekonomia Sustatzeko Sailak, bost ardatz estrategiko hauek martxan jarri ditu:

-Bizkaia, ekintzaile izateko eta hazteko lekurik onena.

-Bizkaia, berritzailea eta lehiakorra.

-Bizkaia, lurralde erakargarria eta konektatua.

-Bizkaia, lurralde orekatua.

-Bizkaia, talentua eta ezagutza.

Hori guztia balio erantsiko zerbitzuak modu eraginkorrean emateko konpromisotik abiatuta burutzen da.

Ardatz horiek garatzeko, diru-laguntzen programez gain, balio erantsiko jarduera eta zerbitzu batzuk ezartzen dira, Bizkaiko Foru Aldundiko Sail honen interesekin bat datozen interesak dituzten erakundeen lankidetza behar da, Ekonomia Sustatzeko Sailaren jarduketa-eremuan Bizkaiko enpresa-sareari eta ekintzaileei zerbitzu hobea bermatzeko Ekonomia Sustatzeko Sailaren jardun-eremuan.

El Departamento de Promoción Económica se configura como el instrumento de la Diputación Foral de Bizkaia para avanzar en el proceso transformador ya iniciado con el objetivo de fortalecer el posicionamiento de Bizkaia como territorio innovador, con talento, atractivo, conectado y equilibrado, así como garantizar que la Bizkaia de mañana tenga como seña de identidad su alta capacidad de crear y mantener empleo de calidad y que se mantenga a la vanguardia económica y social de Europa.

Para ello, el Departamento de Promoción Económica ha puesto en marcha cinco ejes estratégicos:

-Bizkaia, el mejor lugar para emprender y crecer.

-Bizkaia, innovadora y competitiva.

-Bizkaia, un territorio atractivo y conectado.

-Bizkaia, un territorio equilibrado.

-Bizkaia, talento y conocimiento.

Todo ello desde el compromiso de una prestación eficiente de servicios de valor añadido.

Para el desarrollo de los citados ejes, se establecen, además de programas de subvenciones, una serie de actuaciones y servicios de valor añadido, precisándose de la colaboración de aquellas entidades con intereses coincidentes con los propios de este Departamento de la Diputación Foral de Bizkaia, en orden a garantizar un mejor servicio al tejido empresarial y a las personas emprendedoras de Bizkaia en el ámbito de actuación del Departamento de Promoción Económica.

Bigarrena

Beaz, S.A.U. foru sozietate publikoa da. Haren kapital sozialaren % 100 da Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasunekoa eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustatzeko Sailari atxikita dago. Haren xedea honetan datza: sozietateak beharrezko jarduera guztiak egingo ditu, enpresen lehiakortasuna sustatu, garatu eta indartzeko, kalitatezko lanpostuak sortu eta mantentzeko, eta, oro har, Bizkaia lurralde berritzaile, sortzaile, dinamiko eta ekintzailea bihurtzeko, non sozietatearen kohesioak eta lehiakortasunak Bizkaiko gizartearen egungo eta etorkizuneko ongizatea bermatuko duten.

Segundo

Que Beaz, SAU. es una Sociedad Pública foral, cuyo capital social es 100% de titularidad de la Diputación Foral de Bizkaia y adscrita al Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia, cuyo objeto social consiste en la realización de todas aquellas actividades necesarias para la promoción, desarrollo y fomento de la competitividad de las empresas, para la creación y mantenimiento de puestos de trabajo de calidad y, en general, para hacer de Bizkaia un territorio innovador, creativo, dinámico y emprendedor en el que la competitividad y la cohesión social constituyan la garantía del bienestar presente y futuro de la sociedad de Bizkaia

Hirugarrena

Lankidetza hitzarmena erakunde pribatu batekin sinatzen denez, Sektore publikoaren araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2 artikuluan definitutako hitzarmenen tipologia bat da eta, beraz, bertan jasotako erregulazioa aplikatu behar zaio.

Tercero

Que al tratarse de un convenio de colaboración con una entidad privada estamos ante una de las tipologías de convenios definidas en el artículo 47.2 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público por lo que resulta de aplicación la regulación contenida en la misma.

Laugarrena

2021eko uztailaren 20an sinatutako hitzarmenean oinarrituta Beaz S.A.U. foru-sozietate publikoa erakunde laguntzailea da Ekonomia Sustatzeko Sailak sustatutako diru-laguntzak arautzen dituzten foru dekretu batzuei dagokienez. Era berean, bere helburu soziala betez, oso harreman estua du pertsona ekintzaileekin, startupekin, Bizkaiko enpresekin eta Bizkaian kokatzeko interesa duten enpresekin, bai eta tokiko zein sektoreko eragile ekonomikoekin eta Bizkaiko ikerketa- eta berrikuntza-sarearekin ere.

Kontua da Ekonomia Sustatzeko Sailaren eta Beaz SAU foru-sozietate publikoaren interesak eta jarduera-eremua bat etortzeagatik, Ekonomia

Cuarto

Que la Sociedad pública foral Beaz, S.A.U. es, en base al convenio suscrito el 20 de julio de 2021, entidad colaboradora en relación con ciertos decretos forales reguladores de subvenciones promovidos por el Departamento de Promoción Económica. Asimismo, en el ejercicio de su objeto social, tiene una relación muy estrecha con personas emprendedoras, startups, empresas de Bizkaia y empresas interesadas en ubicarse en Bizkaia, así como con agentes económicos tanto locales como sectoriales y con el tejido investigador e innovador de Bizkaia.

Que la coincidencia de intereses y del ámbito de actuación del Departamento de Promoción Económica y de la sociedad pública foral Beaz

Sustatzeko Sailak bultzatutako diru-laguntzen programen esparruan egindako lankidetzagatik eta foru-sozietate hau Bizkaiko enpresen eta ekonomia-sarearen eskari eta beharrizanetatik hurbil egoteagatik, uste da Beaz, S.A.U. sozietatea erakunderik egokiena dela Ekonomia Sustatzeko Sailaren jarduketa-eremuan balio erantsiko jarduketak eta zerbitzuak batera garatzeko hitzarmena formalizatzeko.

S.A.U., el trabajo colaborativo desarrollado en el ámbito de los programas de subvenciones impulsados por el Departamento de Promoción Económica y la cercanía de la sociedad foral a las demandas y necesidades de las empresas y el tejido económico de Bizkaia, hacen que se considere a Beaz, S.A.U. como la entidad idónea con la que formalizar un convenio de colaboración que articule el desarrollo conjunto de actuaciones y servicios de valor añadido propios del ámbito de actuación del Departamento de Promoción Económica.

Foru-sektore publikoak ahalik eta eraginkortasun handiena izateko konpromisoa duenez, beharrezkoa da bi erakundeek bultzatutako jarduketak koordinatzea Ekonomia Sustatzeko Sailaren jarduketa-eremuan balio erantsiko jarduketak eta zerbitzuak batera garatzeari dagokionez. Koordinazio horren helburua emaitza hobeak lortzea, bikoiztasunak ezabatzea eta informazioa eta ezagutza partekatzea da, azken batean, Bizkaiko ekintzaileei, enpresei eta sare ekonomikoari zerbitzu hobea emateko aukera emango dutenak.

Que el compromiso por la máxima eficacia del sector público foral, hace necesario coordinar las actuaciones impulsadas desde ambas entidades en el ámbito de actuación del Departamento de Promoción Económica con el objetivo de lograr mejores resultados, eliminar duplicidades y compartir información y conocimiento y que permita, en última instancia, dar un mejor servicio a las personas emprendedoras, a las empresas y al tejido económico de Bizkaia.

## Bosgarrena

Beaz, S.A.U.k eta Bizkaiko Foru Aldundiak lankidetza-akordioa lortu dute Ekonomia Sustatzeko Sailaren jarduketa-eremuan, eta hitzarmen honetan ezarritako esparru juridikoan gauzatzen da.

## Quinto

Que Beaz, S.A.U. y la Diputación Foral de Bizkaia han alcanzado un acuerdo de colaboración en el ámbito de actuación del Departamento de Promoción Económica que se materializa en el marco jurídico establecido en el presente convenio.

## Seigarrena

Hitzarmen honek helburu dituen eginkizunak bere klausuletan zehaztuta daude, bai eta lehenago adierazitako helburu estrategikoak lortzeko.

## Sexto

Las funciones objeto de este convenio para la consecución de los ejes estratégicos indicados con anterioridad se encuentran determinadas en su clausulado.

Horregatik guztiagatik, alderdiek hitzarmen hau egitea erabaki dute hurrengo klausulen arabera.

Por todo lo cual las partes deciden formalizar el presente convenio, de acuerdo con las siguientes

KLAUSULAK

CLÁUSULAS

Lehenengoa.- Hitzarmenaren xedea eta ondorioa.

Hitzarmen honen xedea da Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren eta Beaz, S.A.U. foru-sozietate publikoaren arteko lankidetzarako baldintzak zehaztea, Ekonomia Sustatzeko Sailaren jarduketa-eremuan garatzen dituen balio erantsiko jarduera eta zerbitzu guztiak gauzatzeko, lehenengo azalpenean ezarritako helburuak lortzeko, betiere horietan berariaz aipatzen bada bi erakundeen arteko lankidetza.

Primera.- Objeto y alcance del convenio

Constituye el objeto de este convenio la determinación de las condiciones de colaboración entre el Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia y la Sociedad pública foral Beaz, S.A.U. en la realización de todas las actuaciones y servicios de valor añadido que se desarrollen en el ámbito de actuación del Departamento de Promoción Económica para la consecución de los objetivos establecidos en la exposición primera y siempre que en los mismos se haga mención expresa a la colaboración entre ambas entidades.

Bigarrena.- Alderdiek onartutako betebeharrak eta konpromisoak

Ekonomia Sustatzeko Sailak eta Beaz S.A.U. sozietateak batera garatu beharreko jarduerak eta zerbitzuak honako hauek dira:

-inkubazio-guneak kudeatzea, azelerazio-zerbitzuak, Bizkaiko enpresei eta sektore ekonomikoei eskainitako balio erantsiko beste zerbitzu batzuk,

-Bizkaiko sektore ekonomiko berriak edo sortzen ari direnak bultzatzea,

-Bizkaiko Lurralde Historikoko artisau-enpresen erregistroan parte hartzen duten edo sartzeko eskatzen duten artisau-enpresak eta tailerrak bisitatzea.

-Bizkaian kokatu nahi duten enpresei laguntzeko zerbitzuak,

Segunda.- Obligaciones y compromisos asumidos por las partes

Las actuaciones y servicios a desarrollar conjuntamente por el Departamento de Promoción Económica y Beaz, S.A.U. son las siguientes:

-gestión de espacios de incubación, servicios de aceleración, otros servicios de valor añadido a las empresas y los sectores económicos de Bizkaia,

-impulso de nuevos o emergentes sectores económicos de Bizkaia,

-visitas a empresas artesanas y a talleres que formen parte o soliciten el acceso al registro de entidades artesanas del Territorio Histórico de Bizkaia,

-servicios de apoyo a empresas que deseen ubicarse en Bizkaia,

-Bizkaiko garapen-agentziekin lankidetzan aritzea, lurraldea garatzeko,

-enpresen lehiakortasuna bultzatzea, eta

-Ekonomia Sustatzeko Sailaren eskumeneko beste zerbitzu batzuk, hitzarmen honen denbora-esparruan batera gara daitezkeenak.

-colaboración con agencias de desarrollo de Bizkaia para el desarrollo del territorio,

-impulso de la competitividad de las empresas, y

-aquellos otros servicios en el ámbito de competencia del Departamento de Promoción Económica que pudieran desarrollarse conjuntamente en el marco temporal del presente convenio.

Hitzarmen honen xede diren lanak egiteko, aldeek beren baliabide pertsonal, ekonomiko eta materialak erabiliko dituzte, eta ez da beharrezkoa izango ekarpen ekonomiko gehigarririk egitea Ekonomia Sustatzeko Sailak lan horiek egin ditzan.

Para la realización de las labores objeto del este convenio las partes utilizarán sus propios medios personales, económicos y materiales, no siendo necesaria aportación económica adicional para el desarrollo de dichas labores por parte del Departamento de Promoción Económica.

Bi alderdiek bere zuzendaritza botere eremuaren barnean mantenduko dituzte hitzarmen honetan ezarritako lanak bideratzen dituzten langileak eta enplegu-emaile den heinean haiekiko dituzten eskubide, betebehar, arrisku eta erantzukizunak gordeko dituzte.

Las partes mantendrán a las personas que dispongan para la realización de las labores previstas en el presente convenio dentro de su ámbito de poder de dirección y conservará respecto a ellas los derechos, obligaciones, riesgos y responsabilidades inherentes a esta condición.

Era berean, modu koordinatuan egingo dituzte hitzarmen hau gauzatzeko egiten dituzten jarduera eta zerbitzu guztiak, eta konpromisoa hartuko dute hitzarmena garatzean lortutako informazio guztia elkarri emateko, eranskinetan ezarritakoaren arabera.

Así mismo, realizarán de manera coordinada cuantas actuaciones y servicios presten en ejecución de este convenio asumiendo el compromiso de facilitarse recíprocamente toda la información obtenida en su desarrollo, en los términos prescritos en los Anexos.

### Hirugarrena.- Ez-betetzeen ondorioak eta alderdiek hartutako konpromisoak

Beaz, S.A.U.k hartutako konpromisoak betetzen ez badira eta horrek hitzarmen honen xedea betetzea galarazten badu, hitzarmena suntsiaraziko da, horri buruzko klausulan adierazitako ondorioekin. Horrez gain, sor litezkeen erantzukizunak eskatu ahalko zaizkie haiek bete ez dituzten pertsonei.

### Tercera.- Consecuencias por incumplimientos y compromisos asumidos por las partes

El incumplimiento de los compromisos asumidos por Beaz, S.A.U. que impida la consecución de la finalidad pretendida por el presente convenio es causa de resolución del mismo con los efectos que se indiquen en la cláusula dedicada a este respecto, sin perjuicio de la exigencia de las responsabilidades que puedan derivarse a las personas que los hayan incumplido.

Ekonomia Sustatzeko Sailak hartutako konpromisoak ez betetzea, haien izaera eta ondorioak kontuan hartuta, ez dira hitzarmena suntsiarazteko zioa. Hala ere, sor litezkeen erantzukizunak eskatu ahalko zaizkie haiek bete ez dituzten pertsonei.

El incumplimiento de los compromisos asumidos por el Departamento de Promoción Económica, atendiendo a la naturaleza y alcance de los mismos, no son constitutivos de causa de resolución del convenio, sin perjuicio de la exigencia de las responsabilidades que puedan derivarse a las personas que los hayan incumplido.

**Laugarrena.- Hitzarmenaren eta hartutako konpromisoen gauzapenaren jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoak.**

Hitzarmenaren Jarraitzeko Batzordea sortuko da, Aldundiko eta Beaz, S.A.U.ko ordezkariek osatua, eta hurrengo ardurak izango ditu:

-indarrean dagoen bitartean norainoko eta aplikazioaz sor daitezkeen zalantza eta desadostasunen jarraipen, kontrol eta konponketa,

-norainoko eta edukia aldatzeko proposamena, arau berriengatik eta aurreikusita ez dauden inguruabarrengatik beharrezkotzat jotzen bada,

-ezarritako epea bete baino lehen eteteko proposamena,

-hitzarmen honen ondorioz sor daitezkeen bestelako egitekoak.

Batzordea urtean behin bilduko da gutxienez.

Batzordearen osaerari dagokionez, hurrengo pertsonek eratuko dute:

-Ekonomia Sustatzeko Sailaren aldetik: zuzendaritza nagusi bietako titularrek.

Lehen aipatutako pertsonak denbora batean ez badaude edo gaixotasunarengatik, haien izenean joango dira izendatzen dituzten pertsonak.

- Beaz, S.A.U.ren aldetik 2 ordezkari joango dira:

**Cuarta.- Mecanismos de seguimiento, vigilancia y control de ejecución del convenio y de los compromisos asumidos.**

Se creará una Comisión de Seguimiento del convenio formada por representantes de Diputación y de Beaz, S.A.U. que se encargará:

-del seguimiento, control y resolución de las dudas y discrepancias que puedan sustanciarse durante su vigencia, relativas a su alcance y aplicación

-propuesta de modificación, de su alcance y contenido, de considerarse necesario atendiendo a novedades normativas o circunstancias imprevistas,

-propuesta de resolución anticipada del mismo,

-demás funciones que se desprendan del presente convenio.

La comisión se reunirá al menos 1 vez al año.

En cuanto a su composición, lo conformarán las siguientes personas:

-por parte del Departamento de Promoción Económica las personas titulares de las dos direcciones generales.

En casos de ausencias temporales o enfermedad de las personas anteriormente indicadas, acudirán en su nombre las personas que designen.

-por parte de Beaz, S.A.U. acudirán 2 representantes.

Alderdi biek hitz ematen dute saiatuko direla emakumeak eta gizonak era orekatuan ordezkatuta egotea bermatzen, une bakoitzean genero berdintasunaren araudian zehaztuta dagoenaren arabera.

Lehendakaritza Ekonomia Sustatzeko Saileko Ekintzailetza eta Enpresa Lehiakortasunerako Zuzendaritza Nagusia izango da eta idazkaritza Beaz, S.A.U.-ren ordezkari batena. Lehendakaritzak kalitatedun botoa izango du berdinduta geldituz gero.

Atal honetan arautzen ez denerako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean organu kolegiatuentzat xedatutakoa aplikatuko da.

Ambas partes se comprometen a intentar garantizar una representación equilibrada de mujeres y hombres según venga definida en la normativa de igualdad de género en vigor en cada momento.

La Presidencia corresponderá a la Dirección General de Emprendimiento y Competitividad Empresarial del Departamento de Promoción Económica y la Secretaría a una representante de Beaz, S.A.U..La Presidencia, en caso de empate, tendrá voto de calidad.

En lo no regulado en este apartado se aplicará lo dispuesto para los órganos colegiados en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

## Bosgarrena.- Hitzarmena aldatzeko araubidea

Jarraipen batzordeak hala eskatuta, hitzarmena aldatu eta luzatu egingo da, horretarako Gobernu Kontseiluaren berariazko erabakia eta Beaz S.A.U.ren onarpena beharko direlarik.

## Quinta.- Régimen de modificación del convenio

A propuesta de la Comisión de Seguimiento se modificará y prorrogará el convenio siendo necesario acuerdo expreso del Consejo de Gobierno y aceptación por parte de Beaz S.A.U.

## Seigarrena.- Hitzarmena iraunaldia

Hitzarmen honek 4 urteko iraupena izango du, formalizatzen denetik aurrera. Bukatu baino lehen espresuki luzatu ahalko da, gehienez beste 4 urtez.

## Sexta.- Plazo de vigencia del convenio

El presente convenio tendrá una vigencia de 4 años desde su formalización. Se podrá acordar su prórroga expresa antes de su finalización, hasta un máximo de 4 años adicionales.

## Zazpigarrena.- Hitzarmenak azkentzea

Osorik betetzearen edo suntsiaraztearen zioz azkenduko da hitzarmen hau.

Hitzarmen hau suntsiarazteko zioak izango dira:

-indarraldia amaitu da, eta ez da hura luzatzeko erabakirik hartu,

-sinatzaileek aho batez hartutako erabakia,

## Séptima.- Extinción de los convenios

El presente convenio se extinguirá por su integro cumplimiento o por resolución

Serán causas resolutorias del presente convenio:

-el transcurso del plazo de vigencia sin haberse acordado la prórroga del mismo,

-el acuerdo unánime de todos los firmantes,

-Beaz, S.A.U.-k hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea,

-epaile batek erabakitzea hitzarmena deuseza dela,

-hitzarmen honetan edo legeetan araututako beste edozein ziorengatik.

-el incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por parte de Beaz S.A.U.,

-por decisión judicial declaratoria de nulidad,

-por cualquier otra causa prevista en el presente convenio o las leyes.

Zortzigarrena.- Hitzarmena azkentzearen ondorioak.

Hitzarmena betetzen bada, likidatutzat joko da Jarraipen Batzordeak hala erabakitzen duen unetik.

Hitzarmen hau bete ezean, Aldundiak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeko 51.2.c) artikuluan adierazitakoaren arabera jokatuko du, egindako errekerimendua Jarraipen Batzordeari jakinaraziz. Errekerimenduan aipatutako epea igaro ondoren hitzarmena bete gabe jarraituko balitz, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak Gobernu Kontseiluari 15 laneguneko epean baliorik gabe uzteko proposatu ahalko dio horretan, izapidetzen ari diren jarduerak amaitzeko beharrezkoak diren jarraibideak ezarriko ditu, bai eta ebazpen horrek ondorioak izan eta Sailak hitzarmenaren xede diren jardueren kudeaketa bere gain hartzen duen unearen arteko trantsizio-aldian bete beharreko arauak ere, zuzenean nahiz beste hitzarmen baten bitartez. Arau horiek derrigorrez bete beharko ditu Beaz, S.A.U.k.

Hitzarmena epea bete baino lehen amaitutzat emango balitz, arazoa jarraipen batzordean aztertu ondoren, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak Gobernu Kontseiluari 15 laneguneko epean baliorik gabe uzteko proposatu ahalko dio, proposamen horretan, izapidetzen ari diren jarduerak amaitzeko beharrezko jarraibideak

Octava.- Efectos de la resolución del convenio.

En caso de cumplimiento del convenio, se entenderá liquidado el mismo desde el momento que la Comisión de Seguimiento así lo determine.

En caso de incumplimiento del presente convenio, la Diputación actuará según lo indicado en el artículo 51.2.c) de la Ley 40/2015 de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, comunicando el requerimiento realizado a la Comisión de Seguimiento. Si transcurrido el plazo indicado en el requerimiento, persistiera el incumplimiento, la Diputada de Promoción Económica podrá proponer al Consejo de Gobierno la resolución del mismo en el plazo de 15 días hábiles, estableciendo en dicha propuesta las instrucciones necesarias para finalizar las actividades que se encuentren en tramitación y las normas a cumplir en el periodo transitorio que medie entre que tenga efectos dicha resolución y el momento en el que el Departamento pueda asumir la gestión de las actuaciones objeto del convenio bien directamente o bien a través de otro convenio de colaboración. Dichas instrucciones serán de obligado cumplimiento para Beaz, S.A.U.

En caso de resolución anticipada del convenio, una vez tratada la cuestión en la Comisión de Seguimiento, la Diputada de Promoción Económica podrá proponer al Consejo de Gobierno la resolución del mismo en el plazo de 15 días hábiles, estableciendo en dicha propuesta las instrucciones necesarias para finalizar las

ezarriko dira, bai eta ebazpen horrek ondorioak dituen aldi iragankorrean bete beharreko arauak ere, Sailak bere gain har dezakeenetik zuzenean edo beste hitzarmen baten bitartez jarduketen kudeaketa. Arau horiek derrigorrez bete beharko ditu Beaz, S.A.U.k.

actividades que se encuentren en tramitación y las normas a cumplir en el periodo transitorio que medie entre que tenga efectos dicha resolución y el momento en el que el Departamento pueda asumir la gestión de las actuaciones objeto de la convenio bien directamente o bien a través de otro convenio de colaboración. Dichas instrucciones serán de obligado cumplimiento para Beaz, S.A.U.

Bederatzigarrena.- Alderdien laguntzeko betebeharra

Alderdi biek konpromisoa hartzen dute Bizkaiko Foru Aldundiak horretarako bete litzakeen kontroleko eginkizunetan laguntzeko.

Novena.- Obligación de colaboración de las partes

Ambas partes se comprometen a colaborar en las funciones de control que al efecto pudiera llevar a cabo la Diputación Foral de Bizkaia.

Hamargarrena.- Isilpekotasuna eta datu pertsonalak babestea

Aldeek erabaki dute elkarri emango diotela hitzarmen honetan aurreikusitako jardueren garapenean lortzen duten informazioa. Informazioa hori (jakinekoa denean, beste alde batetik ezaguna denean edo, entzuna izateko betebeharrarekin egiten den legezko errekerimendu baten ondorioz, hirugarren bati jakinarazi behar zaionean izan ezik) isilpekoa izango dela; beraz, hitzarmen hau betetzeko beste aldetik jasotzen duten informazio guztia erabateko sekretupean gordetzeko konpromisoa hartu dute.

Hitzarmen honetan ezarritakoak eragindako isilpekotasunerako betebeharrak hitzarmena indarrean dagoen bitartean mantenduko dira, baita berau iraungi eta gero ere.

Honako hauek dira datuen babesaren arloko hitzarmen honi aplikatu beharreko arauak: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari

Décima- Confidencialidad y protección de datos de carácter personal

Las partes acuerdan proporcionarse recíprocamente la información que obtengan en el desarrollo de las actuaciones previstas en este convenio y que la información que se revelen mutuamente (salvo que sean de dominio público, que ya se conociera por otra parte o que revele a un tercero por requerimiento legal con obligación de ser atendido) tendrá la consideración de confidencial, por lo que se comprometen a guardar el más absoluto secreto de la información de la otra parte a que tengan acceso, en cumplimiento de este convenio.

Los deberes de confidencialidad derivados de lo establecido en el presente convenio permanecerán durante su periodo de vigencia y subsistirán con posterioridad a la extinción del mismo.

La normativa aplicable al presente convenio en materia de protección de datos es el Reglamento (UE) nº 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y Ley

dagokionez; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa, eta hitzarmen honetako datuen babesaren arloko dokumentazio juridikoa, eranskin gisa gehitu dena. Agiri horietan, hitzarmen hau gauzatzearen ondorioz datu pertsonalak tratatzeaz eta datu pertsonalak lagatzeaz arduratzen diren Ekonomia Sustatzeko Saileko Zuzendaritza Nagusiak eta Beaz, S.A.U.ko organoak identifikatzen dira.

Hitzarmen honi, eranskin gisa, “Datu pertsonalen babesaren arloko dokumentazio juridika” erantsi da.

Dokumentazio horrek zati bi ditu:

-datuen tratamenduari buruzko zati bat, ondorioak izango dituena, hitzarmen hau sinatzean,

-hitzarmen honen esparruan garatutako jardueren datuak jakinarazteari buruzkoa da zati bat, eta komunikatzen diren datuen berariazko baimena, baimen informatua eta zalantzarik gabekoa jasotzen denetik aurrera izango ditu ondorioak, bai eta lagapena zein helburu edo helburutarako baimentzen den jasotzen denetik aurrera ere.

Alderdietako batek tratamenduaren arduradun zein lagapen-hartzaile gisa dokumentazio juridikoan adierazi baino datu gehiago behar baditu goberno kontzeiluak onartu beharko du gai horiei buruzko dokumentazio juridiko eguneratua.

Prozedura hau ezartzen da horretarako: alderdi interesdunak eskaera bat egingo dio urtero, urte bakoitzeko irailaren 1a baino lehenago, hitzarmen honen jarraipen-batzordeari, eta azken horrek eskaera aztertu eta proposamena jaulkiko du. Horretarako, horri buruzko txosten juridiko-teknikoa eska dezake. Proposamen hori kontuan hartuko da gobernu kontzeiluak hura formalizatu

Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de datos personales y garantía de los derechos digitales, y la Documentación jurídica en materia de protección de datos del presente convenio que se acompaña como Anexo. En esta documentación se identifican las Direcciones Generales del Departamento de Promoción Económica y los órganos correspondientes de Beaz, S.A.U. responsables de los tratamientos de datos personales y cesiones de datos personales que se realicen como consecuencia de la ejecución del presente convenio.

Adjunto al presente convenio como Anexo se incorpora la “Documentación jurídica en materia de protección de datos personales”.

Esta documentación se divide en dos partes:

-una parte relativa al tratamiento de datos, que tendrá efectos desde la firma del convenio,

-otra parte relativa a la comunicación de datos de las actividades desarrolladas en el marco de este convenio, que tendrá efectos a partir de que se recoja el consentimiento expreso, informado e inequívoco de los datos que se comunican y para qué finalidad o finalidades se permite la cesión.

Si alguna de las partes necesitara más datos de los indicados en la Documentación Jurídica tanto como encargada de tratamiento como cesionaria de datos deberá aprobarse por Consejo de Gobierno la documentación jurídica actualizada relativa a estas cuestiones.

Para ello se establece el siguiente procedimiento: la parte interesada formalizará una petición, con periodicidad anual y antes del 1 de septiembre de cada año, dirigida a la Comisión de Seguimiento del presente convenio, la cual analizará la petición y emitirá su propuesta pudiendo solicitar informe jurídico-técnico al respecto. Dicha propuesta se tendrá en cuenta para la elaboración de la documentación jurídica actualizada en materia de

aurretik onartuko duen datuen babesaren arloko dokumentazio juridiko eguneratua egiteko.

protección de datos que se aprobará por Consejo de Gobierno con anterioridad a su formalización.

Hamaikagarrena.- Hitzarmenaren izaera eta araubide juridikoa

Hitzarmen honek administrazio izaera du Sektore publikoaren araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluko VI. kapituluan xedatutakoaren arabera, eta ondorioz, sinatzen da kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetzeko, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera errazteko, onura publikoko jarduerak egiten laguntzeko eta aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legeria betetzeko.

Undécima.- Naturaleza del convenio y régimen jurídico

Este convenio tiene naturaleza administrativa conforme a lo dispuesto en el Capítulo VI del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y, en consecuencia, se suscribe para mejorar la eficiencia en la gestión pública, facilitar la utilización conjunta de medios y servicios públicos, contribuir a la realización de actividades de utilidad pública y cumplir con la legislación de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera.

Hitzarmen honek betetzen ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren 169/2014 Foru Dekretuak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten da, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina garatzen duenak, 44.4 artikuluan xedatutako baldintzak, lankidetza plano berean egoteari buruzkoa izan ezik; Salbuespen hori justifikatuta dago Ekonomia Sustatzeko Saileko erakunde instrumental batekin sinatutako hitzarmena delako, bere eskumeneko jarduerak eta zerbitzuak batera garatzeko.

El convenio cumple con los requisitos establecidos en el artículo 44.4 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, de desarrollo del texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria salvo el relativo a que la colaboración entre las partes les sitúa en el mismo plano, excepción que se justifica por tratarse de un convenio formalizado con un ente instrumental del Departamento de Promoción Económica para el desarrollo conjunto actuaciones y servicios propios de su competencia.

Beaz S.A.U. Foru Administrazio honen erakunde instrumentala denez, Ekonomia Sustatzeko Sailari atxikia, Sail horretako diputatu titularrak proposatuko du hitzarmen honen norainoko eta edukiaren interpretazioaz sor daitezkeen desadostasunei eman beharreko konponbidea, Jarraipen Batzordearen barruan alderdi biek onartutako akordio bat lortzen ez bada, eta proposamen hori Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseilura eramango da gaiaz erabakia har dezan.

Siendo Beaz S.A.U. un ente instrumental de esta Administración Foral y adscrito al Departamento de Promoción Económica, será la diputada titular de ese departamento la que proponga la solución a las discrepancias que en cuanto al alcance e interpretación de su contenido puedan surgir, en caso de no haberse llegado a un acuerdo consensuado entre ambas partes en el seno de la Comisión de Seguimiento. Dicha propuesta se elevará al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia para que decida al respecto.

Hitzarmen honi dagokionez aginduzkoak izango dira, bertan xedatutakoaz gainera, zuzenean edo analogiaz aplikagarriak izan daitezkeen Zuzenbide Substantiboko arauak; batez ere, hauek aplikatu behar dira Sektore publikoaren araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoa eta abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina eta haren Arautegia onartzen dituena.

El convenio se regirá, además de por lo dispuesto en el mismo, por las normas de derecho sustantivo que directamente o por analogía puedan resultar de aplicación; en particular, resulta aplicable lo dispuesto en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y el Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el qu ese aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria y su Reglamento de desarrollo.

### Hamabigarrena.- Emakumeen eta gizonen berdintasuna

Parte hartzen duten alderdiek genero-ikuspegia jasoko dute hitzarmen honi dagokionez egin behar dituzten jarduketa guztietan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz. Era berean, bi erakundeek Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Foru Planean xedatutakoaren arabera jardungo dute. Plan horrek 2021-2024 aldirako politika publikoak garatzeko esparru estrategikoa ematen du.

### Duodécima- Igualdad mujeres y hombres

Las partes intervinientes incluirán la perspectiva de género en todas las actuaciones que les corresponda realizar en relación con este convenio, conforme a lo establecido en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Igualmente ambas entidades actuarán con sujeción a lo dispuesto en el VI Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Bizkaia que ofrece el marco estratégico para el desarrollo de las políticas públicas para el periodo 2021-2024.

Eta horrela jaso dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, alderdiek hitzarmen hau sinatu dute.

Y para que conste y surta los efectos oportunos donde proceda, las partes firman el presente convenio.